

Poematxo hau bere testuinguruan ezarri nahirik, egoki dator ondoko oharra: Oroipen historikoaren harian sortua da. Zehazki esanda, Sollube, Jata eta Berreaga mendien arteko borroka latzetan erori eta han hor hemen, solo ertzetan eta, lurperatuak izan zirenen gorazarrez egitekoa zen eskultura bati laguntzeko testu gisa.

OROIMENEAN GORDEAK

Denbora dogu erratza,
iraganeko zabor-biltzaile,
epaile garratza.
Denbora da gaixozaina,
barneko zauri minduentzako
badau sendagai bikaina!

Denbora da euri fina,
ukendu gisa lur minduaren
gainean egina.
Denboran gara amiltzen,
haren kolkoan zenbat sekretu
ilun, ez ete da biltzen...!

Denborak bere kronikan
idatziriko zirriborroa
aztertuz korrikan,
orban baltz batzuk bistara
agertu eta egin eustien
zoritxarreko bristada.

Gerrateko kronika zan:
Bakez ziranak matxinatuen
erasoak jasan.
Irakiten zan odola,
haizeak goitik mehatxu baten
txistu, gerra zeriola...

Ez da ez fantasiako
irudipena; horretaz bada
lekukorik asko:
Gernika dogu sinbolo,
baina hor-hemen jausiak hantxe
bertan geratu ziran lo.

Gerrateko historia:
Berreagatik Bizkargirako
linea gorria;
Jatetik Solluberaino
zabaldu zana, ez zan gerraren
gertakari baltz bat baino...

Baina bakoitzak dauka min,
besterenean barik berean,
hazur eta mamin;
jaso ditu Ama Lurrak
eta beragan gorde isilik
gorpu guztien hazurrak...

Hareen oroipena gorde,
izen bakoien izena jaso,
ez ahaztu inor be!
Barkatu bai ta ahaztu ez;
oroimenean oroigarria
jarri ahaztuen izenez!

Ez oroimenean soilik.
Gure plazan be ezarri bedi
zutik zein zintzilik,
hortxe oroigarri tinko.
Artistak esku trebez egina
gera dadila betiko!

Luis Baraiazarra Txertudi
(2010eko San Joan eguna)